

2008-04-10eko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko apirilaren hamarrean, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna eta M. Jesus Otaño Zumeta andreak.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute:, Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaidekopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/03/04).

2008ko martxoaren lauko ohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2008-03-14ko 29/08 Dekretua: langileek soldata masaren %1eko lansaria

jasotzeko eskerari buruzko espediente osoa auzitegira igortzea, handik eskatu hala.

-2008-03-14ko 30/08 Dekretua: Ignacio Iñurrita Galarragak egindako obra baimen eskaera onartzea.

-2008-03-14ko 31/08 Dekretua: Josune Artola Arregiren jardunaldia aldatu eta egun osokoa bihurtu.

-2008-03-25eko 32/08 Dekretua: 170 – E espedienteari etxez etxeko laguntza zerbitzua onartzea.

-2008-03-26ko 33/08 Dekretua: Antton Gabellanes Urruzola jaunari, eskatutako obra baimena ematea teilatuko teilak eta hodiak aldatzeko.

-2008-04-01eko 34/08 Dekretua: eskulanetako eta tailagintzako ikastaroetako fakturak ordaintzea, guztira 890,78.-€.

-2008-04-02ko 35/08 Dekretua: Irurako Udal frontoia harmaila teleskopikoz hornitzeko lanen kontrataziorako baldintza orriak onartzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, EUSKAL FORGING, S.A. ENPRESAREN GUNEKO XEHETASUNEZKO AZTERKETA.

2008ko otsailaren 7an, 14/08 alkatetza dekretu bidez, Irurako Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 26. zonari buruzko xehetasunezko azterketari behin behineko onarpena eman zitzaion; berau Jon Arzelus Jauregik, Euskal Forging, S.A.ren izenean, aurkeztutakoa da, Euskal Forging, S.A.ren pabilioien berrantolaketari buruz hain zuzen ere. Aipatutako Jon Arzelus Jauregi ingeniari tekniko industrialak idatzitako proiektu teknikoaren arabera da eta 2008ko urtarrilaren 22an dagokion Elkarte Profesionalak bisatua.

Xehetasunezko azterketa honen definizio eta eraketarako zonalde berri honen ordenazioa konfiguratzea beharrezkoa izan da, eta azterlan honen bidez, aipatutako pabilioiaren berriztatze lanak, aprobatzear dauden herriko Arau Subsidiarioen aginduetara egokituko dira.

Espedientea informazio publikoan jarri zen (20 lan egunez), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia ezarriz 2008ko otsailaren 15ean, auzokoei jakinaraziz eta egunkarian argitaratuz. Erakuspen publikoko epea martxoaren 10ean amaitu zen eta denbora horretan, espedientearen kontsulta bat izan den arren, ez dira alegaziorik aurkeztu.

Idazkariaren eta Udala aholkatzen duen arkitektuaren txostenak kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Foru Aldundiko Errepideetako Departamentuaren txostena eskatzea, N-1 errepidearekiko egun dagoen distantzia aldatu egiten baita.

Bigarrena.- Euskal Forging, S.A. enpresaren guneko xehetasunezko azterketa behin betiko izaeraz onartzea, baldin eta igorritako txostena aldeko bada.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO HONAR PABILIOIAREN GUNeko

XEHETASUNEZKO AZTERKETA.

2008ko otsailaren 8an, 15/08 alkatetza dekretu bidez, behin behineko onarpena eman zitzaion Joseba Aranburu Irazuk, Construcciones Lantegi, S.A. ren izenean, aurkeztutako Irurako Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 25. zonari buruzko xehetasunezko azterketari, Honar pabilioiaren berrantolaketari buruz hain zuzen ere. Berau, Juan José Arrizabalaga eta Alejandro Peña arkitektoek idatzitako proiektu teknikoaren arabera da eta 2008ko urtarrilaren 17an dagokion Elkarte Profesionalak bisatua.

Xehetasunezko azterketa honen definizio eta eraketarako zonalde berri honen ordenazioa konfiguratzeko beharrezkoa izan da, eta ikerketa honen bidez, aipatutako pabilioiaren berriztatze lanak, aprobatzear dauden herriko Arau

Subsidiarioen aginduetara egokituko dira.

Espedientea informazio publikoan jarri zen (20 lan egunez), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia ezarriz 2008ko otsailaren 18an, auzokoei jakinaraziz eta egunkarian argitaratuz. Erakuspen publikoko epea martxoaren 12an amaitu zen eta denbora horretan, espedientearen bi kontsulta izan dira. Alegazioei dagokienean, berriz, bakarra izan da, Jose Luis Iturbe Arandiak, Xarala S.A.ren izenean egindakoa. Aurkeztutakoa, funtsean, alegazio bat baino gehiago inguru horretan ur hoditeri eta estolderian dauden arazoez azalpen bat da eta bereizitasun hauek kontuan izateko eskatzen du Honar pabilioia eraitsi eta bereraikitzerakoan.

Idazkariaren eta Udala aholkatzen duen arkitektuaren txostenak kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Honar pabilioiaren guneko xehetasunezko azterketa behin betiko izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia egitea agintzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2006KO EKITALDIARI DAGOKION KONTU

OROKORRA.

2007ko apirilaren 26ko Osoko Bilkurak, besteak beste, 2006 urteko ekitaldiaren likidazioa onartu zuen.

Kontu Orokorra jendaurrean jarri zen erakusgai eta 2007ko maiatzaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen zegokion iragarkia. 15

lanegunetako epea igaro ondoren, ez zen inongo erreklamaziorik aurkeztu.

Aurrekoa ikusirik eta abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoa kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- 2006ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Kontu Orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegira lehenbailehen igortzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik tartekarri.

SEIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, KIKILAU, S.L.-EK AURKEZTUTAKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA (GASPAR ENEA GUNEARI DAGOKIONA).

2007ko abuztuaren 25eko sarrera data eta 1323 zenbakiarekin, Jokin Iraola Elosegui, Kikilau, S.L.ren izenean, A.I.2-2 – Area 2 – Aldapagainen (Gaspar enea eta Aldapagain gunek) 16 etxebizitza, garaje eta guzti, eraikitze lizentzia eskatu zuen. Eskaerarekin batera, oinarrizko proiektuaren kopia bi aurkeztu ditu Jose M^a eta M^a Carmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzita eta dagokion elkargoak bisatuta 2007ko abuztaren 17an. Lanek 1.370.793.-€ko aurrekontua dute.

Hirigintza plangintzaren aldetik, ondorengoak hartu behar dira kontuan:

- Irurako Udalak 2007ko uztailaren 27an eginiko ezohizko osoko bilkuran behin betiko onartu zuela Irurako 5. Zonako Gaspar Enea eta Aldapagain guneen xehetasun azterlana.
- Irurako Udalak 2007ko irailaren 11an egindako ohizko osoko bilkuran, bestek

beste, Gaspar Enea eta Aldapagain guneen garapen eta urbanizaziorako Hirigintza Hitzarmena onartu zuela. Aipatutako hitzarmena 2007ko irailaren 12an sinatu zen eta dagokion publikotasun epean ez zen inolako eragozpenik aurkeztu.

- 2007ko azaroaren 6an egindako ohizko osoko bilkuran, Borondatezko Birpartzelazio Espedientea onartu zuen hainbat akats zuzentzeko baldintzapean. Ondoren, 2007ko azaroaren 28ko 123/2007 alkatetza erabakiak, aipatutako baldintza betetzen duen dokumentua berretsi zuen. Behin betiko dokumentua, 2008ko urtarrilaren 23an Pedro Elosegui Bergareche notarioaren aurrean izenpetutako eskritura publikoa onartu zen.
- Kontuan hartu beharrekoa da baita ere, eragileen eskubide eta betebeharrak finkatzerakoan, zonaldea hiriztatu gabeko lur hirigarritzat hartzen dela eta, 2/2006 legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa eta aplikagarriak diren gainontzeko arauen arabera ondorengo betebeharrak hartu behar dituela bere gain:
 - ✓ Derrigorrez eta doan laga beharko dio Administrazioari, ekipamenduetarako eta zerbitzu-bidetarako dagokion lur eremua eta herri erakundeen hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan erkidegoak parte har dezan, batez besteko hirigintza-erakigarritasunaren % 10i dagokion kopurua (81.333.-€).
 - ✓ Hiriztatzea. Edifikatzerakoan aldi berean egingo da, abuztuaren 25eko 3288/1478 Errege Dekretuz onartutako Hirigintza Kudeaketako Arautegiko 41 artikulua ezarri baizaio.
- Ondorengo baldintzak ezarriko dira:
 - ✓ Ezingo da edifizioa okupatu, edifizioari dagokion hiriztatzea erabat bukatua egon arte eta ura, argindarra, gasa (badagokio) eta estolderia horniketarako funtzionatzeko moduan egon arte.
 - ✓ Dena dela ere, ez bada hiriztatzea eraikitzearekin batera egiten, lizentzia indargabetu egingo da, kalteordainik ez du izango eta eraikitakoa erabiltzerik ez da egongo.

- ✓ Epe barruan egiteko agindua betetzen ez bada, Administrazioak dagozkion lursailak desjabetzeko edo nahitaez salduarazteko eskubidea izango du eta emandako baimena iraungi ere egin dezake.
- ✓ Esandako guztiaz gain, dagozkion eraikuntza zerga eta abala ezarri beharko da, betebeharrak betetzen direla bermatzeko.
- ✓ Oinarrizko proiektuan oinarrituz ematen den lizentzia hau, lizentzia administratiboa besterik ez da. Kontuan izan behar da, exekuzio proiektua ekarri eta onartu artean, eraikuntza lanek ezingo dutela 0 kotatik gora igaro.

Aurrekoa ikusirik eta idazkariaren txostena kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Kikilau, S.L.-k eskatutako eraikitze lizentzia ematea, beti ere aipatutako baldintzekin eta aurkeztutako oinarrizko proiektuan oinarrituz.

Bigarrena.- Dagozkion zerga eta gainontzeko diruzko betebeharrak ordainaraztea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZAZPIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, TOLOSALDEA GARATZENI URTEKO LEHEN ZATIAGATIK DAGOKION EKARPENA EGITEA.

Tolosaldea Garatzenek, udal hau partaide izanik, batetik 2008 urteko jardueran egin beharreko ekarpenaren likidazioa aurkeztu du, 6.491,00.- €koa. Kopurua, gestio planari (5.850,00.-€) eta klinikako autobusari dagokio (641.-€). Bi zatitan egiten den ekarpena da eta lehenengo zati honetan egin beharreko ekarpena guztira 3.245,50.-€koa.

Udalbatzak aho batez onartu du, Tolosaldea Garatzen aipatutako kontzeptuengatik egin beharreko urteko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZORTZIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, ERNIOALDEA UDALTALDEA 21 PROIEKTUAREN BARRUAN EGINDAKOENGATIK DAGOKION LEHEN EKARPENA EGITEA.

Tolosaldea Garatzenek, Ernioaldea Udaltaldea 21i dagokion proiektuaren barruan, udal hau partaide izanik, batetik 2008. urteko jardueran egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren likidazioa aurkeztu du. Guztira 5.449,48.000.000 delarik.

Teknikariaren kontratazioa	Urt. ots eta mar	1.316,67.-€
Bulego materiala	%50	22,69.-€
Dietak eta ikastaroen likidazioa	%50	5.449,48.000.000.-€
Aste berdea eta Mugikortasun astea	%50	1.700,00.-€
Uraren kontsumoa murrizteko kanpaina	%100	682,08.-€
Bizikletari eta oinezkoen mugikortasun plana	%50	830,75.-€
Hiri hondakinak murrizteko sentiberatze kanpaina	%100	610,95.-€
Olio eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzua	%100	252,30.-€
Guztira		5.449,48.-€

Udalbatzak aho batez onartu du Tolosalde Garatzen, Ernioaldea Udaltaldea 21i dagokion proiektuaren barruan gauzatu diren lanengatik Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

BEDERATZIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, MENDI ETA BAZTERREN GARBIKETA 2007-
2008 AUZOLAN PROGRAMAREN BARNE EGIN DIREN LANENGATIK
DAGOKION EKARPENA EGITEA.

Tolosaldea Garatzenek, Auzolan Programaren barruan, 2008ko urtarrilean mendi eta bazterren garbiketan egindako lanengatik Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren likidazioa aurkeztu du, guztira 1.000.-€ direlarik.

Udalbatzak aho batez onartu du Tolosalde Garatzeni, Auzolan Programaren barruan urtarrilean gauzatu diren lanengatik Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMARGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLA
MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko uztailaren 4an, Irura Udalerria Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean bazkide gisa sartzeko proposamena onartu egin zuen.

Loatzo musika eskola mankomunitatea sortu zenetik hainbat aldaketa gertatu dira eta egokia ikusten da estatutuak aldatuz erakundea eguneratzea. Honetarako ezin bestekoa da mankomunitatea osatzen duen partaide bakoitzak estatutuen aldaketa hau onartzea, ondoren mankomunitatearen batzar orokorrak onartuko dituelarik.

Aztertu dira egin nahi diren aldaketak eta Udalbatzak aho batez onartu du, Loatzo Musika Eskola Mankomunitateko estatutuen aldaketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:10etan eman da amaitutzat bilera. Hantxe esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.